

Amal Raiqabetuasi

bederati muna.

ATV
18328



EDIT. SOCIAL CATOLICA
VITORIA

H- 8568

R- 36234

ATV

18328

JAUNGOIKO - ZALE'REN IDAZTIJAK

IZURATEGI ABADIA.

AMA NAIGABETUARI

BEDERATZI - URUNA



1921

JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLEAN

Zorrotza. — (Bizkaya)

Nihil obstat
Lic. Petrus de Anasagasti
Censor

IMPRIMATUR
Victoriæ 7 Decembris 1921
Vicarius generalis

L. † S. *Dr. Joseph Leonlius O. de Zárate*


De mandato Perill. Domini Vicarii generalis
Dr. Justo de Echeguren
Can. S.rius.



GEMITUS MATRIS TUÆ NE OBLIVISCARIS
AMAREN NEGAĀAK EZ EGIZUZ AIZTU

(Eccli. 7-29)





AMA NAIGABETUARI

BEDERATZI - URUNA

Neure Jesukristo Jauna.....

EGUNEROKO OTOITZA

¡O Marija!, ama guztijen artian amarik bigunena, samuřena, gozuena, baña baita atsekabetuena be.—Zeure seme zintzuak garian aldetik, gauř zeure auřera gatoz, bederatzi-urun onetan eta zeure laguntzaz, zeure bijotzeko naigabe mingařijak eta samintasun gařatzak gogoratutera, eurak sařatuten dabezan ikasbidiak jařaituteko asmoz.—Egizu ba, ařen, ama laztana, adimen argiz ta bijotz samuřez gogoratu daiguzala, gure bijotzetan zeuganako eřukija ta maitasun berua sortu dedin.—Alan izan dedila.

LENENGO EGUNERAKO

G O G A R T I A

Simeon urtetsuaren itzak

Jerusalen'go urijan, Simeon zeritxon gizon bat bizi zan, urtietan auferatua, zīnismen biziko gizona, Jaunaren esanak zintzo betetan ebazana.—Israēl'go alaitzalia ikusi barik e'rbeste onetatik ez ebala urtengo, Jaungoikuak adierazo eutsan. — Oitura eban lez Eleizara zuzendu zan eta zeruko argiz ezagutu eban Marijak besuetan eroyan umetxua Jaungoikuaren Semia zala. —Bere besuetan artu ta poz-pozez ta begijak zerurutz jasorik Jaunari dirautso: «Jauna, nire begijak zure osasungarīja ikusi dabe: zure serbitzarija bakez bete dozu: erbeste onetatik atara eikezu.» Eta besuetan eukan umetxua amari emotian dirautso: «*Ecce positus est hic in ruinam et in resurrectionem multorum in Israel...*» «Ume au askorentzat galgarīja izango da, beste asko beragaz ondo balijaurik salbauko badira be.—Gañera naigabezko ezpata so'otzak zure bijotza sulatuko dau.»

Marijak bertatik ezagutu eban zer jaso-ko jakon, itz onetan bere Seme maitiaren azken goñija ikusi ebalako. Au izan zan bere bijotz samuñra zauritu eutson lenengo ezpata soñotza.—Ezpata au bijotzian josiñta eroyan Marijak bere bizitza guztijan, nun-nai ta era guztijetan, egunez ta gabaz, etxian eta etxetik kanpora; ugatz gozuak emoten eutsazanian, nai laztan bigunak ezartzen eutsazanian, beti, bere seme kutunak izango eban nekaldi gogoñra gogoratuten jakon-da.

Eta guk ¿eztogu iñoz gure ama Marijaren bijotz samuñra geure pekatu, gaiztake-ri ta dolorkerijakaz zauritu?

Gogoratu apurtxo baten eta eskatu gura dan eskañ edo grazija. Gero saspi «Aguñ Marija» esan egizuz.

AZKENENGO OTOITZA

O Ama naigabetua! Simeon deunaren itz gañatzak entzutian zure bijotz samuñrak artu eban samintasunagaitik, erukitu, arñen, guzaz eta lagun gaizuz pekatuakaz

damutu ta pekatuari gofoto izaten, zure bijotza alaitu ta gure arimatxuak salbau daitezzen.

BIGAREN EGUNERAKO

GOGARTIA

Egipto'ra - igesa

Marija ta Jose, alai ta gozoro bizi ziran Belen'en.—Jesus maitasunik beruenagaz maitatzen eben. Jesus zelan azi ta gorde zan Marija'ren pentzamentu bakara.—Eztija baño gozuago zan ugatzagaz janaritutten eban.—Jesusegaz eukazan bere ardurra guztijak.—Baña ara lo gozuan eguala Josek nun esnatzen daben, esanaz: «Berbertatik iges egin biar dogu, Herodes ef-ege donga ta bijotz gogoreko arek Jesus il-gura dau-ta. Laster bialduko dauz gudarriak Jesus umetxuaren bila. Augaitik, oraintxe bertan urten biar dogu Egiptoruntz bere atzaparetan jausi eztediñ.»

Albista au entzutian, Jesus il-gura ebenak ate-inguruan egozala irudituko jakon Marijari. ¡Ze esturia beria! ¡Ze ordu lañija!

Geijagoko barik, gauza guztijak bertan-bera itxi: inguruan eukazan zapitxuakaz bere semetxua estaldu ta, Jose deuna laguntzale dabela, ama-semiak an doyaz igesi. Leku ilun, aldapa, ta sasiz inguratu-tako basterak artzen dabez bidian inor ez ikustiagaitik. Pristijen oruak eta aixe txistularijak lairituten dabe Marijaren bijotz samura, ta besuetan eroyan semetxua bularian estuturik, dirautso: «Jesus, Jesus laz-tana! Zeruak ezteyala zu Herodes'en eskuetan jaustia gura-izan!—Ze esturia! Ze naigabe mingotsa ama maite onena!

Guri be sari-askotan (diñosku) esaten dosku zeruak, txerena geure arimak arapau nairik dabilela, ta bide gaizto, aizkide donga ta galbide urekuetatik iges-egin daigula. Orain-artian zer egin dogu? Aurerantzian zer egitia uste dogu?

Gogoratu..... ta eskatu..... Suspi «Aguñ Marija.»

AZKEN - OTOITZA

O Ama lairitua! Egipto'ra iges-egitian artu zinuizan estura ta lairitasun mingarijkaitik lagunduiguzu, ahen, zeure eskar

edo grazijagaz; eta emoiguzu pekatuko bide okeñak itxi ta zeruko bide zuzenetan ibilteko bial dogun laguntasuna ta zeure antzera Jesus ez galtziagaitik gauza guttijak itxiñeko adoria.

IRUGAÑEN EGUNERAKO

G O G A R T I A

Jesusen galtzia

Herodes il eta irugañen urtian Nazaret'eko urira biurtu zirian Ama-semiak eta Jose Deuna. Uri atan eta Marijaren etxetxuan bake gozatsuan bizi ziran.—Ama, egunetik-egunera eztitsuago zan semeari begira eguan. Jose, bere sena deunak, eta langile prestuak irabasten eban, ama-semiak bial eben janarija.—Nazaret'eko etxetxuak zerua zirudijan.

Baña, laño bagako egun garbi ta alaya laster goibeltzen dan lez, Nazaret'ko etxetxua be naigabezko odei-ekaitxuak eztali dau.—Jesus mutikotxua, aita ta amagaz

Jerusalen'era Paskoz jua zana, igari barik, aldra bategaz edo bestiagaz etoŕelakuan, Jerusalem'en geratu jaken.—Egun biko ibiltaldija egin ezkerokuan eta gaba igaroteko ostatura eldu zirianian, Jesus etzala agiri ezagutu eben. ¡Ze atsekabia! ¡Ze arantza mingarija sartu jaken bijotzian Jose ta Marijari! Bideko nekia kentzeko asti barik etxetik urten da ara ta ona duaz; senide ta ezagunen artian itandu ta ezto-tse inok azteŕenik emoten.—Umetxo bat urinera ikusi orduko, Jesus, bere semetxua dala irudituten jako amari, baña..... Jesus ezta agiri. ¡Ze estutasuna! ¡Ze laŕija! Zuloŕen baten jausi ete-da? Arkelao bijotz gogoŕekuak arapau ete-dau? Deyezka ete-dago? ¡Jesus! ¡Jesus! Nun zara? Zergaitik naukazu onan negaŕez? Zeure amagan uts-egitŕeren bat aurkitu al-do zu? ¡O Ama gazitua! ¡O nun-nai negaŕez bilatzen zaitudan ama laztana!

Eta guk, uskeri bategaitik Jesus saldu dogunok; atsegin zataŕ bategaitik ainbeste bidaŕ Jesus galdu dogunok, ezto gu negaŕ-malkorik izurtzen? Ezto gu Bera bilatute-

ko ezer egiten? Jesus barik, bizitzarik alayena, zoritxarrik baltzena da.

Gogoratu..... ta eskatu..... Saspi «Aguñ Marija.»

AZKEN - OTOITZA

Iru egun luzietan, negarez urturik, zeurre semetxuaren bila ibili zinian Marija! Izuri, aŕen, gure bijotzetara dongaro egiñaren damu-izpitxo bat, damuz eta negarez, Jesus bilatu daigun, eta bañiro bera iñoz galdu eztaigun, Jesusegaz bizi gura dogu, ba, orain emen luñian eta gero an, zeru goijan.

LAUGAREN EGUNERAKO

G O G A R T I A

Jesus kurutzia lepuan eroyela

Jerusalendañak gañasika kurutzeko erijotzia eskatu ta Pilatos epaikarijak lapuñ biren erdijan ilteko epaija emon eutsonian, Jesusen bijotz samuñ uratuta, orolduta, naigabez beteta geratu zan.—Emon eutsezan zartada ikaragañijakaz zauri bat egiñik eguan, alan guzti bere, kurutze lu-

ze astuna aurian ipiñi eutsenian, laztandu, sorbalda-gañian artu ta kalbarijoko mendiruntz igoten asi zan.—Bere Amak, Juanek esanda, au jakin ebanian, etxian egon eziñik urten da bide-zioñak-ziañ auria artu eutson.—Badator Jesus lapur biren erdijan. Adañ-soñu gañatzak eta tanboñ-saratak ikaratuten dabez emakume batsuk.—Marija antxe dago zutik ikusmirarik negargañijaren zain. Alako baten ikusten dau Jesus ta Jesusek be bai bere ama, ta bijen bijotzak naigabe gordiñaz bete ziran.—Jesus, indařgatuta, lañi-lañi joyan eta zutik ezin egon da, bere amaren aurian luña jo eban.—O Ama! amarik maitiena! Zein neuñibagia dan zure atsekabia!

Eta guk, ez-ete doguz iñoz bañistau, Marijak bere semiaren nekaldijan igaro ebazan atsekabe aundijak? Geure bijotzak (kontzientzijak) zer dirausku?

Gogoratu..... ta eskatu. ... Saspi «Aguñ Marija.»

AZKEN - OTOITZA

O ama lañitua! Jesus zeure seme Maitia kurutze astunagaz joyala urkamendiko

bidian ikusi ziñuanian artu ziñuan min-atsekabe aundijagaitik, erukitu guzaz; gure bijotzetan pekatuaren damu egijazkua sortu, pekatua gorotauagaz zure nagabiak arindu ta zure bijotza alaitu daigun.

BOSKAREN EGUNERAKO

GOGARTIA

Jesus kurutzian josita.

Eldu jako Jesus, gure maitale aundijari, Aita betikuak izentauriko erijotz - ordua. Igo zan kalbarijoko mendira.—Zer dakuse gure begiak mendi oretan?—Eroma'ko gudalaridak gentadija alderatuten, Jesus bildotz erugabia zutik arerijoz inguratua, boferuak ultze ta maluak eskuetan dabezela Jesus josteko gertu.—Kurutze-gañian etzin dedila agintzen dotse ta Jesus, beti esaneko, txitik egin barik etziten da ta ultze gogor eta zorotzakaz esku-onak josten dotsez:—Marija, semiaren esku ta onetako ultziakaz bere bijotza puskatuta

ebala kurutze-oñian zutik eguan.—Or-
egaitik diño Bernardo deunak «Marijak al-
di atan igaro ebazan min-atsekabiak, gure
miñak adierazo ta buruak gogoratu al-lei-
kezan baño aundijaguak izan ziriala» *Nec
lingua poterit loqui, nec mens cogitare
valebit quanto dolore afficiebantur pia
viscera Mariæ.* (In. Lam. B. Mariæ).

Amaren bijotza bere semia gaizkile bat
lez ilten ikusteko bigunegija da; eta sa-
muřena izan ařen, auřez-auř dauko bere
Semia erijotzarik lotsagarijenian ilten.
—¡Ze atsekabia Ama maite onena! Baña
Jesusen gorputzeko miñak baño, berari
botetan eutsezan madarikaziñuak, geijago
minduten eben amaren bijotz samuřa.
Prætereuntes blasphemabant eum.—Ju-
degu bijotz gogořdun arek, Jesusen auře-
tik igarorik, burlaz zirautsen: «bestiak
salbau dauz ta bere burua ezin salbau
dau: Jaungoikuaren Semia bazara jatxi
zaitez kurutzetik eta ziñistuko dogu» eta
Marijak, bere Seme maitia aingeruak,
igarlak, Juan-deunak eta Isabel deunak
ago batez donetsi ebena zala jakin ařen,

madarikaziño guzti onek ixil-ixilik entzun da iruntziten dauz.—¡O Ama, naigaberik aundijenagaz gazitua!

Eta guk ez ete-dogu iñoz Marijaren Semelaztana birauakaz, Ogi Deuna bijotz deungaro gertauan artuagaz, izketa nasaita nabarmenakaz iraindu?

Gogoratu... . ta eskatu..... Saspi «Aguñ Marija.»

AZKEN-OTOITZA

Kurutziaren oñian samintasunez beterik zengozan Ama erukigarria! biraulari dongakaz erukitu zaitez ta eskatu zeure Semel Jesusi, bigundu dagizala, añen, euren bijotz gogortuak eta euren begi itxutuak edegi, madarikaziñuaren astuntasuna ezaguturik deabruzko izkuntz au goñotau ta Jesus zeure zabeleko frutu donetsija beti ta aldi guztijetan onetsi dagijen.

SEIGAREN EGUNERAKO

GOGARTIA

Marija Kurutziaren oñian

Juan deun ebanjelarijak, kalbarijoko

jazoera negargari guztijen ikusle izan zanak, eta ain ziatz ta garbi adierazo eban zanak, Marijaren oñazak asaltzeko baño aundijaguak ziralako itz onexek bakarik idatzi ebazan: «Marija kurutziaren oñian zutik eguala: *Stabat juxta crucem Jesu*».

Atsekabiaren neurija maitasuna izan oida.—Luñeko maitalien artian ama lezko maitalerik eztago.—Amak, naiz ondo erantzun, naiz txarto, naiz eskergabiak izan, jaijotzatik il-arteraño aspertu barik maite gaituz.—Maitalerik bero, itxu, garbi ta iraunkoñena ama da.—Marija, ama guztijen artian amarik bigunena, samur-ena, gozuen zana, Espiritu Deunak doe guztijakaz apaindu ebalako.—Serapiñena baño bizijagua ta eñiagua zana bere Jesusi eutson maitasuna... eta... ama onek bere seme maitia kurutzatuta ikusten dau ta ezin lagundu, arantzaz buruestaurita ta arantza bat bera be ezin kendu, bere esku-oñak ultze gogoñakaz josita ta ezin etara, egañiz ifoten da ur tanga bat ezin emon, biloxik eta bere aragijak ezin estaldu; esaten dautsezan birauak entzun

da ago baltz arek ezin ixildu.—¡Ze samintasun aundija ama onena! Jesusi lagundu gura ta ezin lagundu, bere neke andi-garatzak arindu gura ta ezin arindu: onek puskatuten eutson bere bijotza. «Marija, ordu atan, bizi-bizirik il-agiñian aurkitzen zala» diño Geronimo deunak: *moriebatur vivens*.

Gure Ama Marijak kurutzepeko naigabe aundijak sendotasunik miragaríjenagaz eruan ebazan lez, eruan daiguzan guk be, erbeste onetan noizian-beiñ aurkituten doguzan kurutziak.

Gogoratu..... ta eskatu..... Saspi «Aguí Marija.»

AZKEN - OTOITZA

¡O Marija, ama guztijen artian naigaberik gordiñenakaz asetua; bizitza onetan idoroko doguzan oñaze, estutasun eta laritasun guztijak gaurtik auñera zeure ize-nian eruan gura doguz: baña argalak garian lez, zeure laguntasuna itxaroten dogu; beragaz indarturik, eruapen oso-osuagaz eruan al-izan daiguzan, euren bidez donoki goiko atsegiñen jabe egin gaitian.

SASPIGAREN EGUNERAKO

GOGARTIA

Marija geure Ama

Jesus kurutzian josijari odola baxen ugari erijon efukitasuna be.—Bere nairigabe ta min aundijakaz azturik bere iltzali entzat parkaziñua eskatuten dautso Aita zerukuari; parkaziñua ta zerua eskintzen dautsoz lapur onari ta bere maitasun-azken ezaungarria giza-seme guztijoi agertu nairik, kurutziaren onian samintasunez beterik eguan bere ama, amatzat emoten dosku.—Bere begi lausotu ilaginkuak amaganuntz biurtu ta buruagaz Juan maitia erakutsirik: «andria, dirautso, ora or zeure Semia»: eta gero Juanengana zuzendurik: «Seme, ora or zeure ama» Itz labur onekaz amaren bijotzeko nairigabia astunago egin zan.

Eztautso ama deitzen, andria baño ta arantzale baten semia emoten dautso Seme Jaungoiko-ordez, ikaslia erakusle or-

dez, berez dontsua dan ordez gizon peka-
tarija.—¡Au desbardintasun negaríarija!

Baña amak bere seme bakaña, semerik
onena, maitalena galtzen badau, guk os-
tera amarik bigunena, samuñena irabazten
dogu.—Auíerantzian, bere amatasunaren
ardura guztijak geugaz izango dauz ta
beragandik estutasunetan laguntasuna,
ezetsijetan indaña, naigabezko egunetan
poza jaretxiko dogu.

Zeruko ama onegaz gogoratuten gara?
Seme on bati dagokijon maitasuna era-
kusten dotsagu?

Gogoratu..... ta eskatu..... Saspi «Aguí Marija.»

AZKEN - OTOITZA

Ordurik estu ta laíijenian zeure min nai-
gabe aundijak aztuta geugaz gomutau zi-
ñian, Jesus kurutzetua! Zeure ama geure
amatzat emon doskuzulako eskerak da-
motzuguz.—Iguzu, Jauna, zeure ikasle ta
seme-ordeko Juanek maitatu eban lez,
geuk be maitatu daigula, bere eskaí ta
mesede aundijen duiñ egin gaítezan.

ZORTZIGAREN EGUNERAKO

G O G A R T I A

Jesusen erijotza

Jesukristo gure Jauna naigabez, miñez, ta samintasunez asetuta kurutze lotsagarrian il zanian bere oñaze guztijak amaitu ziran, baña kurutzepian eguan ama lañijarenak etzirian amaitu, geitu ta ugaritu baño.—Itxaso asaratuan olatu bizdunak bata bestiaren ondoren atxetan apurtzera doyan lez, Marijaren bijotzera oñazeak oñazen gañera etozan.

Ze malko samiñak isuriko ebazan! Ze itz bigun maitaliak negarakaz nastauta esango eutsazan, Jose ta Nicodemus deunak Jesusen gorpu ila altsuan ipiñi eutseñian!

Jesus, neure seme laztana! nork ainbesteraño zauritu zaitu? eguzkijak baño argijago egiten eben zure begi orek nork ilundu dauz? zeruko egi osasuntsuak iragarñen ebazan zure miñ ori nork lotu

dau? alde guztijetan mesediak baño zabaltzen ezebezen zure eskuok nork zulatu dauz?..... eta onan zauri guztijak laztanduaz negaiez urtzen zan.—Erukarija benetan ama maite onen samintasun garatza!.....

Eztaiguzala amaren negaiek astu, dirausku Espiritu Deunak: *gemitus matris tuæ ne obliviscaris*. Orain-artian gogoratu doguz? Eurak legortuteko ezer egin dogu? Marijaren negaiek pekatuaren damuagaz legortuten dira.

Gogoratu..... ta eskatu..... Saspi «Aguir Marija.»

AZKEN - OTOITZA

O Ama atsekabetua! Geure pekatuakaz zeure seme laztana il eta zure bijotz samura zauritu dogu. Geure gaiztakerija, geure erua autoirtuten dogu.—Ain donga ta eskerbagak izana damu dogu. Gugaz erukitu, geure ama zara ba ta; ta kurutzepian izuri zinuizan malko saminak Jesusi gugaitik eskiñi, euren bidez emen luñian parkaziñua ta gero betiko atsedena ta zerrua jaritxi daiguzan.

BEDERATZIGAREN EGUNERAKO

G O G A R T I A

Marijaren bakañdadia

Seme maitia ilten ta ilik ikustia naigabe aundija da amarentzat, baña, semiaren gorpu ila besuetatik kendu ta obiratzen dabenian, naigabe au aundijagua izaten dala esan leike.—Marijak bere seme bakañ laztana kurutzeko erijotza lotsagañ-ijagaz ilten ikusi eban, baita ilik euki be bere besuetan; eta luñeko amak, ordu lañi atan, negañez ta zotinka egoten badira, ama guztijen artian samuñena zan zeruko ama onek, zelako negañak eta zotiñak emongo ez ete ebazan?

Jose ta Nikodemus deunak, beragaz eñukiturik, Jesusen gorpu ila besuetatik kendu eutsen eta usain gozozko bedañez estaldu ta izara bañi bategaz batuta obijan ipiñi eben, arlosa aundi bat gañian esañirik.—Marija bere semiari azken agura egiñik bere etxera biurtu zan, bakañdadian negañ samiñak izurtera.

Ze gau ilun eta baltza igaroko eban egun atan! Zenbat gauzagaz oroituko ez ete zan seme bagako gau atan! Erukañija benetan Marija aldi atan!

Bere atsekabe aundijakaz gogoratu gaitiala gura dau Marijak: Serbiten batzaña ipiñi eben zazpi gizon doneai alan adierazo eutsen.

Gogoratu..... ta eskatu..... Saspi «Agur Marija.»

AZKEN - OTOITZA

Martirijen Erégiña!, gure maitasunez ta gure arimen osasunerako, zeure seme Jesusen kurutzeko oparijagaz bat egiñik, samintasunik gañatzenak igaro ziñuzan ama laztana!; bederatzi egun onetan emon doskuzuzan ikasbide edeñak gure bijotzetan josiña geratu deitezala, eurak sañi-sañi gomutaurik, bizitzia ondu, zeure oneraspenian berotu ta zeure birtute edeñakaz geure arimak ornidu daiguzan, onela, emen luñian zeure antzekuak izanik, gero zeugaz donokijan bizi gaitezán. Alan izan dediña.

Este

BOLETIN

se publica ordinariamente

